

ENPARANTZA ETA PLAZA EZ DIRA GAUZA BERA.—Gure jarrera karismatikoak nora garamatzan igartzea ezta gauza erraza. Enpeinaturik gaude *Plaza = Enparantza* delakoan. Gainera, erdaraz euskaraz baino hobeto dakigunez, *enparantza* jatorragotzat joten dugu, *amparar*-en kidetasunik aurkitu gabe. Ez dakit zerk ematen digun itsutasun hau, baina gure herriko leku-izenetan zaharrik baldin bada, *Plaza* dugu zaharrenetako bat. Erromatarren garaikoa noski, beraiek tokiz-toki jartzen zituzten herrixkak hala zirenez. Hor ditugu Gipuzkoan bertan Mendaron eta Eskoriatzan, bigarren hontan erromatarren aztarna ta guzi, *terra sigillata* zeramika bereziaren zati batzu aurkitu direnez. Bestalde, Erdi-arotik oso ezuguna da Bizkaiko Markinan *Plaza* torretxea, Berriatura bidean oraindik zutik dagoena. Bestalde, euskal deituretan ere sartua dago *Plaza* huts-hutsik eta baita *Plazagoitia* eta *Plazaola* bezala ere. Ezkiogan ordea, bada edo baten *Plazakotegi* baserria, duela urte batzu bertakoek etakoei laguntza eman ziotelako eskubitarrak erre zutena hain zuzen .

*Plaza*, jatorriz, griegotik batador ere, guk latinaren bidez jasoa dugu.

Donostiako parte zaharrean, ez Antiguan, portuko hiri bilduan baizik, *Plaza de la Constitución*, XIX. mendean ideki zen, erreketaren ondoren, eta donostiar euskaldunek *Plaza Berria* deitu izan dute. Hiriko kaleen historiaz zerbait idatzi dutenek ere bai, besteak beste Serapio Mujika eta Agustin Anabitarteren idazlanak lekuko. Orain ordea, beren buruak abertzale eta euskaldun egin guran, *Konstituzioko Enparantza* jartzeaz enpeñatu dira. Holako iritzi kaxkarrez euskarari on egin beharreak kalte eginaz. Gainera, oroi, kale bat ere badela Donostian bertan *Plazaburu* izenekoa.

*Enparantza* aldiz, plaza ere izanen da, baina ez plaza ideki baten zentzu berean, defentsarako plaza hertsian baizik. Enpa-

rantzaren agiriak Azkue hiztegiak eskaintzen dizkigu. *Enparatu*-rekin badu zer ikusirik. Baina, Arakistain debarrarena zalan-tzaz jartzekoa da, erabiltzen duen era berean behintzat. Berak baino lehen erabili zutenena fidagarriagoa da. Esate baterako A. Marichalar eta C. Manrique-k *Historia de la Legislación y recitaciones del Derecho Civil de España* (Fueros de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Alava), Madriden 1868.eko edizioaren 54. orrialdean zekarrenez: «A estos pusieron prudente remedio los reyes, nombrando cuatro jueces, que podemos llamar de *emparanzas*, con el cargo de reformar las fuerzas y agravios hechos por los reyes antecesores y sus gobernadores...» Horren xehetasunak Bonifazio Etxegaraik eman zizkigun *Eus-ker*a aldizkariko lan batean (ikus, «Algunas voces vascas usadas en el fuero general de Navarra», *Euskera*, VIII, 1927. urtekoa, 63-64 orrialdeetan): «*Emparanza* significa embargo, ejecución de bienes... Eta, «*emparar*, que vale tanto como embargar, secuestrar» eta kidekoak nola erabiltzen zituzten Aragoian eta Kataluñan.

Euskara jatortasunez eta esate aberatsez gorde nahi badugu, ez ote zaigu komeni Plazarentzat Plaza, bere era jatorrez erabil-tzea? Ala, *plaza-gizon* ordez *enparantza-gizon* erabili behar ote dugu?

\* \* \*

PASAIAKO ANTZO EZTA ZABAL.—Neurriz kanporakorik maiz egin da hizkuntzaz, baina *Pasajes Ancho* ezta A.B. dela-koak 1980ko abenduaren 7an *El Diario Vasco*-ren ohar batean, «Más frivolidades lingüísticas» izenburuz agertzen zuena, Pa-saia Zabal itzulpena emanaz. Ez.

Lekuizenez, *Antxo* zeritzan etxe batetik hartua du Pasaiako alderdi horrek bere izen orokorra. Gero, gaztelerako *Ancho* bezala jaso dena.